

## STARTINNOVA: MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure enpresaren bezero nagusiak enpresa elektriko handiak eta gobernuak izango dira. Hortik abiatuz, enpresa horiek, edo gobernuak, bezeroen artean banatu egingo dute energia gure enpresan egindako inbertsioak errentagarriak izateko eta etekinak lortzeko. Sare moduko bat sortuko dugu, eta gu sare horren erdigunean egongo gara.

Hasteko gure inbertsoreak enpresa handiak izango direnez, haien ezaugarriak aztertu behar ditugu:

- Edukiko ditugun bezero nagusiak enpresa elektriko handiak izango dira, gure energia erabiliko dutenak, beraz energia iraunkorra eskaini beharko dugu, eta kantitate handietan. Energia saltzen duten enpresak dira hauek, Iberdrola esate baterako.

- Enpresa handi bat izango garenez ez gara hemen Euskal Herriak bakarrik geratuko ezta Espainia mailan ere. Enpresa internazionala izateagatik beste herrialdeetako gobernuekin akordioak izango ditugu behin gure enpresa finkatuta egonda. Gure helburua beste herrialdeetako hiri oso handiak energiaz hornitzeko, gobernuekin akordio batera heltzea da. Adibidez Estatu Batuetako New York-en edo Japoniako Tokio hiriburua.

- Etorkizunari begira, ez dugu baztertzen energiaren beste sektoreetara hedatzea. Nahiz eta orain bakarrik enpresa handientzat energia ekoiztu, behin enpresa sendotuta egon etxeetara zuzenean energia eramatea etorkizunerako jomuga oso inportantea da.